

2100 AÑOS
DE CONVIVENCIA



POMPELO | PAMPLONA | IRUÑA
2100 | URTEKO
ELKARBIZITZA | AÑOS DE
CONVIVENCIA




Ayuntamiento de
Pamplona | Iruñeko
Udalak



En el año 2025 se cumplirán 2100 años desde aquel año 75 a.n.e en que, según las fuentes, el cónsul romano Cneo Pompeyo Magno fundó la ciudad romana de Pompelo, a la que honraría dándole su propio nombre.

Es en ese momento cuando Pamplona, como núcleo urbano, entra en los anales de la historiografía clásica. No obstante, las raíces de Pamplona, de la vieja Iruña, son mucho más profundas y beben directamente del acervo y la tradición del pueblo vascón y su cultura, el mismo que vio nacer aquella urbe y que la ha sostenido y dotado de personalidad a lo largo de estos 21 siglos.

1.500 años después de que Pompeyo Magno impulsara aquel asentamiento romano, otro hombre ilustre, el monarca navarro Carlos III el Noble, moría y era enterrado en la catedral de la vieja Iruña, entonces reconocida ya como capital de un estado asentado en el marco europeo. Era el 8 de septiembre de 1425, justo dos años después de que el mismo monarca firmara el Privilegio de la Unión, el documento fundacional de la Pamplona moderna. Un documento que marca, sobre el principio de la superación de las diferencias y del fomento de la convivencia entre diferentes, la senda de la construcción de la Iruña actual. Ese hecho marcaría a futuro el carácter de sus gentes.



El presente dossier trata de ilustrar de forma resumida tanto la relevancia de las dos efemérides que se propone celebrar este año la capital navarra, como el programa que se está articulando para hacerlo. La idea no es aislar una celebración de la otra, sino concatenarlas, unirlas en un único programa ideado para dimensionar la proyección histórica de una ciudad que nació para la historiografía con la decisión de Pompeyo Magno hace ahora 2.100 años, pero que desde hace 602 transita por la historia con una identidad reforzada por la unión, orgullosa de su pasado, esperanzada con su presente y ambiciosa de cara a enfocar su propio futuro.


Desde la relevancia que da un bagaje histórico tan amplio como el que abarcan 2.100 años, desde el orgullo que supone que Pamplona esté entre las pocas ciudades del mundo que pueden contarla y desde la convicción de que la celebración de esta efeméride debe proyectar e impulsar a la ciudad hacia un futuro prometedor, es desde donde se enfoca el presente dossier. Su objetivo es trasladar la importancia de esta celebración, pero también ofrecer a otras instituciones y agentes la posibilidad de compartirla y unirse al impulso de un programa ambicioso que espera estar a la altura.

Recorrido histórico en 6 actos:


«Pamplona-Iruña,
una ciudad con
(más de) 2100 años
de historia»



1. La ciudad de Pompeyo en el corazón de la tierra vascona



En el 75 a.n.e, en el momento de establecer el trazado de la ciudad que llevaría su nombre, Cneo Pompeyo Magno no escogió una ubicación ex novo, sino que reaprovechó un antiguo poblado vascón de nombre desconocido, situado en la zona próxima a la catedral.



Los restos y fondos de cabaña indígenas localizados en esta zona demuestran, sin lugar a dudas, que el origen primero de la ciudad se remontaría aún varios siglos más allá de la fundación romana. Y nos llevaría al mismo contexto en el que, en un poblado muy similar, situado a unos pocos kilómetros de distancia y distingible a simple vista desde Pamplona, se alumbró a la mundialmente conocida «Mano de Irulegi».

Es en aquellos primeros años de la fundación romana cuando la ciudad entra en la historia, de la mano del geógrafo griego Estrabón, que en el siglo I a.n.e escribía que «pasada la Jacetania, hacia el norte, se encuentra la tribu de los vascones, donde hay una ciudad llamada Pompelon, que es como decir la ciudad de Pompeyo...». Esta ciudad tuvo un carácter netamente romano, con su estructura de *cardus* y *decumanus*, su foro, su *macellum* (mercado) y sus termas.

Sabemos que fue en varias ocasiones destruida al final del periodo romano pero, reconstruida otras tantas veces, entra en la Edad Media con el nombre romance de Pamplona y el nombre vasco de Iruña que, amplísimamente documentado para el siglo XI, vendría a significar simplemente «la ciudad», señal inequívoca de la referencialidad que Pamplona tuvo siempre en el territorio vascón.



2. El asentamiento que alumbró un Reyno

Esa referencialidad se constata también cuando a partir de 824 la ciudad se convierte en capital del Estado de Navarra, que no evanó en sus primeros siglos de existencia se denominó Reino de Pamplona.

En torno al siglo XII, con el auge del Camino de Santiago, al abrigo de este primer núcleo de raigambre vasco-romana se sumarán dos «burgos», poblaciones amuralladas habitadas por «francos» de origen norpirenaico. Son «el Burgo» de San Cernin y «la Población» de San Nicolás.

Estos burgos vivían de la actividad económica derivada de la ruta jacobea, y las relaciones entre ellos y con la primitiva «civitas» romana, llamada ahora Navarrería, serán muy malas. Los enfrentamientos alcanzarán su clímax en 1276, cuando San Cernin y San Nicolás, coaligados, arrasarán la Navarrería, en lo que se llamó la Guerra de los Burgos. La Navarrería permaneció mucho tiempo destruida, y solo tras cuatro décadas de abandono volverá a ser habitada, de manera lenta y progresiva.



A principios del siglo XV un gran rey de Navarra, Carlos III el Noble, terminará con esa nefasta trayectoria de siglos. Cansado de las continuas rivalidades y desafíos, emite el célebre Privilegio de la Unión, que unifica los tres burgos en un único ayuntamiento, con un alcalde, un escudo y una única normativa municipal.

3. La convivencia, una lección que es seña de identidad






Y en el espacio situado entre los tres burgos, donde primitivamente sus gentes salían a pelear, el rey mandó construir una Casa Consistorial, situada en el mismo lugar que la actual, que de esta manera se convierte en símbolo de unión para pamploneses y pamplonesas. La leyenda que actualmente preside su entrada, *patet omnibus janua, cor valde magis* («las puertas están abiertas, pero sobre todo el corazón»), dan testimonio de ese carácter abierto y conciliador.

El Privilegio de la Unión fue emitido el 8 de septiembre de 1423, justamente dos años antes de la muerte del monarca, que se produjo el 8 de septiembre de 1425. Es decir, que el 8 de septiembre de 2025, fecha del Privilegio de la Unión, se cumplirá también el 600 aniversario de la muerte de Carlos III, fecha que la ciudad debería, en justa correspondencia, celebrar debidamente. Desde el punto de vista del desarrollo urbano, el Privilegio supuso, entre otras cosas, la unificación de la ciudad bajo un único recinto amurallado, y la desaparición paulatina de las murallas interiores que habían dividido a los burgos. Este importante documento supone, en suma, el final de la Pamplona medieval y el pistoletazo de salida para su entrada en la Edad Moderna.

POMPELO | PAMPLONA | IRUÑA

2100 | URTEKO
ELKARBITZA | AÑOS DE
CONVIVENCIA

4. El sueño de una capital europea



Tras la negra época de las guerras civiles entre beumonteses y agramonteses, bajo el reinado de Catalina I y Juan de Albret volvió la estabilidad. Es el momento en el que Pamplona, capital de un reino pequeño pero solvente, se prepara para entrar en el Renacimiento. La invasión castellana de 1512 y los posteriores 18 años de guerra, arruinan este sueño.

Pamplona se encuentra ya en paz para el año 1507. Es una ciudad plenamente unida bajo un único municipio, y para 1486 tiene ya su nueva Casa de la Jurería (Consistorial). Se ha dotado de una catedral de rango europeo, con el claustro más bello del gótico, y es sede de las principales instituciones del reino: Real Chancillería, Consejo Real, Cortes y Diputación del Reino. Gracias al impulso dado al Humanismo con Catalina I y Juan de Albret ve como para 1490 se abre en sus calles una imprenta, tan solo 50 años después de que fuera inventada por el alemán Gutenberg, y en 1499 se crea un Estudio de Gramática, antecedente de las futuras universidades, donde se enseña Gramática, Latín, Arte y Filosofía.

Con todo, este magnífico sueño será arruinado por la invasión de 1512 y los posteriores 18 años de guerra que, arrinconando para siempre el proyecto de convertirse en una brillante capital europea, harán de Pamplona una plaza militar periférica, encerrada entre murallas para defender al imperio de los embates de los franceses.

5. La ciudad encorsetada que supo resurgir



En los 4 siglos que van desde la conquista y hasta principios del siglo XX, lo único que se construirá en Pamplona a escala europea es el impresionante cinturón de murallas, que encerrará y ahogará el crecimiento de la ciudad hasta que, a partir de 1915, la ciudad resurge.



Tan solo algunos chispazos aislados, producidos sobre todo en lo que Caro Baroja llamó «la hora navarra del XVIII», alivian algo aquel periodo oscuro: la construcción de algunos palacios tardobarrocos, el adoquinado y alcantarillado dieciochesco de las calles, la traída de aguas de Subiza a las fuentes de Pamplona en 1790, el Primer Ensanche de 1888, que hubo de construirse aún dentro de las murallas... y poco más.

Será a partir de 1915 cuando el Ramo de Guerra español afloje la prohibición de construir más allá de las murallas y, entonces sí, Pamplona se desparramará por los despoblados alrededores, la antigua *terra nullius* batida por los cañones de las murallas, dando lugar a la ciudad que todas y todos hemos conocido.

De entrada, el llamado Segundo Ensanche, dibujado por Serapio Esparza en 1916, del que se dijo que era desmesurado para Pamplona y, que sin embargo, se colmató en unas pocas décadas. Y posteriormente el conocido como Tercer Ensanche, con los nuevos desarrollos de la segunda mitad del siglo XX.



6. Una ciudad que se proyecta hacia el futuro con esperanza y ambición

Hoy en día, sobrepasados los 200.000 habitantes y caminando irremisiblemente hacia la colmatación de su término municipal, Pamplona-Iruña es una ciudad viva, abierta y moderna.

Una ciudad que pone en valor su larga historia, pero que afronta el siglo XXI bajo las premisas de la diversidad cultural y lingüística, la pluralidad de sus gentes y la igualdad entre hombres y mujeres.

En el horizonte de 2025, cuando se cumplen 2.100 años, XXI siglos desde la fundación romana de Cneo Pompeyo Magno, la vieja Iruña afronta con ilusión el Cuarto Ensanche de su trayectoria bimilenaria.





Un programa ambicioso para un año referencial

El programa sobre el que se está trabajando es ambicioso desde una triple perspectiva: la temporal, la cultural y la de contenidos.

En su puesta en marcha no sólo se quiere implicar al Ayuntamiento de Pamplona, que aquí actuaría como promotor, sino también a otras entidades, instituciones y agentes referenciales de la ciudad que serán los encargados de darle lustre.

Y todo con un objetivo final crucial: involucrar a la ciudadanía, que es el público final al que va destinado este programa pero que, además, forma parte consustancial de él, dado que no se puede concebir esta ciudad sin sus gentes.

Dimensión temporal

Los eventos que se incluyen en este programa se extienden a lo largo de todo el año con especial incidencia en dos momentos: los meses de primavera y el mes de septiembre.

- » Es en primavera cuando se plantea un ciclo de conferencias que desgranará, desde la perspectiva científica, histórica, académica y divulgativa el recorrido histórico de la ciudad desde sus antecedentes vascones hasta su proyección actual como ciudad de convivencia y con vocación de vanguardia.
- » Respecto al mes de septiembre, es entonces cuando se celebra el evento más referencial en cuanto a la creación de la Pamplona moderna, la firma del Privilegio de la Unión el 8 de septiembre de 1423. Pero es que además este año, en esa misma fecha, se cumple el 600 aniversario de la muerte del monarca que lo ideó, impulsó y firmó, Carlos III el Noble.





Dimensión cultural

El programa tratará de consensuar dos perspectivas complementarias e imprescindibles: una referencialidad historiográfica al nivel de la efeméride y la perspectiva de la participación popular como vehículo para interiorizar la relevancia de la celebración. Y esto se plantea hacerlo a través, fundamentalmente, de dos herramientas:

- » Una exposición retrospectiva sobre la fundación romana de la ciudad.
- » La adaptación y el redimensionamiento a la importancia de la fecha de los principales eventos relacionados con la celebración del Privilegio de la Unión, el festival de las murallas y varios eventos específicos que se plantea para el verano de este año.



Dimensión a nivel contenidos

Desde la convicción de la relevancia de la conmemoración que se afronta, es responsabilidad de este Ayuntamiento salvaguardar para el futuro lo que surja de los encuentros y las actividades programadas.

Así, se plantean dos acciones relevantes:

- » La grabación y edición de un proyecto audiovisual que documente el ciclo de conferencias de primavera. Al respecto también se contempla la edición de un libro con las actas que se recojan de cada una de las sesiones.
- » La puesta en valor de varios elementos ornamentales de la ciudad relacionados no sólo con su proceso fundacional sino también con su valor artístico.

Un programa en tres actos:

Viaje por la historia de Pamplona-Iruña

Un recorrido fascinante por más de 2.100 años de historia, cultura y tradición.

Desde los orígenes de la ciudad hasta su futuro, te invitamos a vivir Pamplona a través de diálogos, recreaciones, ferias y exposiciones únicas.

PRIMER ACTO: DIÁLOGOS SOBRE LA HISTORIA DE PAMPLONA

MARZO, ABRIL Y MAYO DE 2025
PALACIO DEL CONDESTABLE
HORA DE COMIENZO 19,00 H

26 DE MARZO, MIÉRCOLES ACTO INAUGURAL

Diálogo 1: «Del mundo vascón al mundo romano».
Jokin Lanz (historiador, profesor en la UPNA).
Javier Armendariz (arqueólogo, profesor en la UPNA).

9 DE ABRIL, MIÉRCOLES

Diálogo 2: «La monarquía pamplonesa: de la urbe romana a la ciudad de los burgos (SS. XII y XIII)».

Aitor Pescador (historiador).
Josu Narbarte (historiador).

15 DE ABRIL, MARTES

Diálogo 3: «Tiempo de coronaciones y tradiciones: la Pamplona de los siglos XIII al XV».
Mikel Zuza (historiador).
Iñaki Sagredo (historiador).

30 DE ABRIL, MIÉRCOLES

Diálogo 4: «Pamplona, proyecto humanista cortocircuitado».

Álvaro Adot (historiador, profesor en la Universidad Complutense de Madrid).
Peio Monteano (historiador).

06 DE MAYO, MARTES

Diálogo 5: «Ellas, las mujeres en la historia de Pamplona».

Amaia Nausia (historiadora, profesora en la UPNA).
Gemma Piérola (historiadora, profesora en la UPNA).
Ana Díez de Ure (historiadora).

13 DE MAYO, MARTES

Diálogo 6: «La Pamplona de los ensanches».

Bixente Taberna (arquitecto y urbanista).
María Urmeneta (arquitecta y urbanista).

20 DE MAYO, MARTES

Diálogo 7: «Euskara iruñeko historian».

Enrike Díez de Ulzurrun (periodista y traductor).
Ekaitz Santazilia (filólogo, profesor en la UPNA)

SEGUNDO ACTO: CARLOS III IN MEMORIAM

AGOSTO Y SEPTIEMBRE DE 2025

FESTIVAL DE LAS MURALLAS

5 DE AGOSTO, CIUDADELA

La compañía de danza Kukai inaugurarán el Festival de las Murallas con un espectáculo único, creado especialmente para celebrar el 2.100 aniversario de Pamplona.

CELEBRACIÓN DEL 602 ANIVERSARIO DEL PRIVILEGIO DE LA UNIÓN

5 - 8 DE SEPTIEMBRE

Gran Feria Medieval – La feria medieval se renueva para ofrecer una auténtica experiencia de la época

- » Más de 100 puestos de productos y artesanías tradicionales.
- » Calles convertidas en un auténtico escenario medieval, con el asesoramiento de Fernando Hualde, experto en iconografía medieval navarra.
- » Espectáculos y animación medieval, con artistas especializados en música, teatro y recreaciones históricas.
- » Participación activa de distintos sectores para hacer de esta feria una experiencia única.

6 Y 7 DE SEPTIEMBRE

PARQUE RUNA Y CORRALILLOS DEL GAS

Feria de Ganado Autóctono y Producto Local

Recuperación de la feria de ganado histórica con:

- » 300 cabezas de ganado en exposición.
- » Encuentros profesionales, productos amparados en marcas de calidad, demostraciones de esquileo, conducción de ovejas, elaboración de queso, mercado de productores locales y actividades lúdicas.

8 DE SEPTIEMBRE, 17,45 - 19,00 H

CATEDRAL DE PAMPLONA

Homenaje a Carlos III el Noble

Ceremonia especial en memoria del rey Carlos III, en el 600 aniversario de su muerte, con una impresionante recreación histórica de su Coronación en 1390.

TERCER ACTO: PAMPLONA-IRUÑA Y SUS ORÍGENES (S.I.A.C. - S.I.D.C.)

DICIEMBRE 2025 - PRIMER SEMESTRE 2026

EXPOSICIÓN Y SIMPOSIO

DE DICIEMBRE DE 2025 A JUNIO DE 2026

Exposición. Sala principal de exposiciones del nuevo Civivox del II Ensanche

- » Objetos originales y recursos pedagógicos para todas las edades.
- » Superficie de 500 m² con una museografía innovadora.
- » Avalada por expertos en historia y arqueología.

PRIMAVERA DE 2026

Simposio científico centrado en los 2.100 años de historia de Pamplona-Iruña

Encuentro académico en torno a los 2.100 años de historia de Pamplona-Iruña con:

- » Participación de Universidades estatales e internacionales.
- » Ponencias de expertos de renombre.
- » Edición de materiales específicos sobre el simposio.

ACTOS ADICIONALES

28 DE MAYO

Programa especial de SER Historia

28 de mayo: Un recorrido por los 2.100 años de Pamplona-Iruña, grabado en directo desde el Palacio del Condestable.

OCTUBRE DE 2025

«Imagina Pamplona-Iruña 2050»

Jornadas de reflexión sobre el futuro de la ciudad: movilidad, inteligencia artificial, evolución social... ¿Cómo será Pamplona en 25 años?

Unidad Didáctica de Archivo

Un proyecto educativo para acercar la historia de Pamplona a todas las generaciones.

BIGARREN EKITALDIA: KARLOS III.a IN MEMORIAM

2025eko ABUZTUA ETA IRAILA

HARRESIETAKO JAIALDIA

ABUZTUAK 5, ZIUDADELA

Kukai dantza taldeak Harresietako Jaialdia inauguratuko du Iruñeko 2.100. urteurrena ospatzeko bereziki sortutako ikuskizun paregabe batekin.

BATASUNAREN PRIBILEGIOAREN 602. URTEURRENAREN OSPAKIZUNA

IRAILAREN 5TIK 8RA

Erdi Aroko Azoka Handia, Erdi Aroko azoka berritu eginen da garai hartako benetako esperientzia eskaintzeko

- » 100 saltokitik gora produktuekin eta produktu artisau tradizionalekin.
- » Kaleak Erdi Aroko benetako agertoki bihurtuko dira, Fernando Hualde Nafarroako Erdi Aroko ikonografian adituaren aholkularitzaren eskutik.
- » Ikuskizunak eta Erdi Aroko animazioa, musikan, antzerkian eta birsorkuntza historikoetan espezializatutako artistekin.
- » Hainbat sektoreren parte-hartze aktiboa, azoka esperientzia bakan bihurtzeko.

IRAILAK 6 ETA 7

RUNA PARKEA ETA GASEKO ESKORTAK

Bertako Ganadu-azoka

eta Tokiko Produktuen azoka

Ganadu-azoka historikoa berreskuratzea

- » 300 abelbururen erakusketa.
- » Profesionalen arteko topaketak, kalitatezko markek babestutako produktuak, artilea mozteko erakustaldiak, ardiak eramatea, gazta egitea, tokiko produktuen azoka eta jolas-jarduerak.

8 DE SEPTIEMBRE, 17:45 - 19,00 H

CATEDRAL DE PAMPLONA

Karlos III.a Nobleari omenaldia

Zeremonia berezia Karlos III.a duela 600 urte hil zela oroitzeo, 1390eko Koroatzearen egundoko birsorkuntza historiko batekin. (17:45, 19:00). Iruñeko Katedrala.

HIRUGARREN EKITALDIA: IRUÑA ETA BERE JATORRIA (K.A. I. M. – K.O. I. M.)

2025eko ABENDUA
ETA 2026KO LEHEN SEIHILEKOA

ERAKUSKETA ETA SINPOSIOA

2025eko ABENDUTIK 2026KO EKAINERA ARTE
**Erakusketa. II. Zabalguneo Civivox berriko
erakusketen areto nagusia**

- » Jatorrizko objektuak eta baliabide pedagogikoak adin guztietako herritarrendako.
- » 500 m²-ko azalera, museografia berritzalearekin.
- » Historian eta arkeologian adituek bermatua.

2026KO UDABERRIA

Zientzia arloko sinposioa, Iruñearen

2.100 urteko historian ardaztua

Iruñearen 2.100 urteko historiari buruzko topaketa akademikoa.

- » Estatuko eta nazioarteko unibertsitateek hartuko dute parte.
- » Izen handiko adituen hitzaldiak.
- » Sinposio honi buruzko berariazko materiala argitaratzea.

EKITALDI GEHIAGO

MAIATZAK 28

'SER Historia' irratsaio berezia

maiatzaren 28an

Iruñearen 2.100 urteetan barnako ibilaldia, Kondestablearen jauregitik zuzenean grabatua.

2025eko URRIA

«Irudika ezazu Iruña 2050ean»

Hiriaren etorkizunari buruzko hausnarketa-jardunaldia: mugikortasuna, adimen artifiziala, gizartearen garapena... Nolakoa izanen da Iruña 25 urte barru?

Artxiboak eginiko Unitate Didaktikoa

Iruñeko historia belaunaldi guztietako herritarrei hurbiltzeko hezkuntza-egitasmoa.

**2100 URTEKO
ELKARBIZITZA**



POMPELO | PAMPLONA | IRUÑA
2100 | URTEKO
ELKARBIZITZA | AÑOS DE
CONVIVENCIA



Ayuntamiento de
Pamplona | Iruñeko
Udala



2025ean 2.100 urte beteko dira gure garaiaren aurreko (g.g.a.) 75. urte hartatik: iturrien arabera, Gnaeus Pompeius Magnus kontsul erromatarak, Ponpeiok alegia, urte hartan sortu zuen Pompelo hiri erromatarra, eta bere izena jarriz ohoratu zuen.

Orduantxe sartu zen Iruña historiografia klasikoan hirigune gisa. Nolanahi ere, Iruña zaharraren sustraiak sakonagoak dira, eta baskoien ondarea, tradizioa eta kultura izan dira zuzenean sustrai horien elikadura-iturri nagusia; izan ere, baskoiek ikusi zuten hiria sortzen, eta, 21 mende hauetan guztietan iraunazteaz gain, nortasun berezia eman diote Iruñeari.

Ponpeiok erromatarren kokagune hura bultzatu zuenetik 1.500 urtera, beste gizon entzutetsu bat, Karlos III.a Noblea, hil egin zen, eta Iruña zaharreko katedralean ehortzi zuten: ordurako aitortua zioten Iruñeari Europan finkatuta zegoen estatu bateko hiriburua zela. 1425eko irailaren 8a zen: Karlos III.ak bi urte lehenago sinatu zuen Batasunaren Pribilegioa, Iruña modernoaren sortze-agiria. Agiri hori izan zen lehen pausoa desberdinak gainditu eta askotariko herritarren arteko bizikidetza sustatzea oinarri hartuta gaur egungo Iruña eraikitzeko bidean. Etorkizunean, horrek eragina izan zuen herritarren nortasunean.



Txosten honek laburpen bat egitea du xede: aurten Nafarroako hiriburuan ospatzekoak diren bi urteurrenen garrantzia eta horiek ospatzeko programa bilduko dira hemen. Asmoa ez da bi ospakizunak bereiztea, kontrako baizik: programa bakar batean uztartzea. Esan dugunez, historiografiaren arabera duela 2.100 urte sortu zuen Ponpeiok Iruña, eta hiriak historian izan duen garrantziari balioa emateko sortu da aipatu programa. Duela 2.100 urte sortu bazen ere, 602 urte dira nortasun berezi batek hartu zuela Iruña, eta hala izan da ordutik gaurdainoko historian: batasunaren indarra nabaria da, hiria harro dago bere iraganaz, esperantza da nagusi orain, eta anbizioz eginen dio aurre etorkizunari.


2.100 urteko historia luzea du hiriak, eta mutua handiko ondarea utzi digu horrek; gainera, harro egoteko modukoa da Iruña historia hain zabala kontatzeko gai diren munduko hiri gutxietako bat izatea, eta uste osoa dugu biziki garrantzitsua dela urteurrena ospatzeko orduan hiriaren etorkizuna oparoa izan dadin bultzatzea: hori guztia hartu dugu abiapuntutzat txosten hau ontzeko. Halaber, ospakizun horren garrantzia azpimarratzea da txostenaren helburua, baina ez hori bakarrik: beste erakunde eta eragileei aukera eman nahi diegu ospakizun horretan parte hartu eta urteurrenen neurrikoia izatea espero dugun programa anbiziotsuari indarra emateko.

Ibilbide historikoa 6 ekitalditan:


«Iruñeaak historia
luzea du: 2.100 urte
(baino gehiago)»



Ponpeioren hiria baskoien lurrardearen bihotzean



Gure garaiaren aurreko 75. urtean, Gnaeus Pompeius Magnus kontsulak hiria non ezarri erabaki zuen: ez zuen ex novo edo oin berriko toki bat aukeratu, baskoien antzinako herrixka bat baizik. Katedralaren inguruko lurretan zegoen, eta garai hartan ez zekiten nola zuen izena.



Indigenen arrastoak eta etxolen hondoak aurkitu dituzte inguru horretan, eta aurkikuntza horiek agerian utzen dute, zalantza izpirik gabe, hiriaren jatorria erromatarrek sortu baino hainbat mende lehenagokoa dela. Halaber, horren erakusgarri dugu antzeko beste herrixka batean, Iruñetik kilometro gutxira dagoen eta hiritik begi hutsez ikusten den inguru batean, «Irulegiko eskua» aurkitu dutela berriki, eta mundu osoari ezagutarazi.

Nolanahi ere, erromatarrek hiria ofizialki sortu eta urte gutxira sartu zen Iruña historian. Estrabon geografo greziarrak aipatu zuen lehen aldiz, eta hauxe idatzi zuen g.g.a. I. mendean: «Jazetania atzean utzita, iparralderantz, baskoien tribua bizi da, eta Pompelon izeneko hiri bat dago han: Ponpeioren hiria esatearen parekoa da...»

Hiri erromatarra izan zen argi eta garbi: *cardus* eta *decumanus* erromatarren kaleekin sortu zuten hiriaren egitura, *foroa* zeukan, *macellum* bat ere bai (merkatua), eta termak ere eraiki zituzten. Dakigunez, hainbat aldiz suntsitu zuten erromatarren garaiaren amaieran, baina suntsitu zuten bezainbat aldiz berreraiki ere bai, eta Erdi Arora sartzean Pamplona izen erromantzea eta Iruña euskarazko izena hartu zituen. Euskarazko izena hainbat eta hainbat dokumentutan azaldu zen XI. menderako, eta «hiria» esan nahi du bere horretan: horrek erakusten du, ezbairik gabe, baskoien lurraldetako referentzia izan zela beti Iruña.



2. Erresumari bide eman zion kokalekua

**Erreferentziazko izaera horren erakusgarri
izan zen, halaber, 824. urtetik aurrera
hiria Nafarroako Estatuko hiriburu bihurtu
izana: hain zuen, hasierako mendeetan
Iruñeko Erresuma izena eman zioten.**


XII. mendearren bueltan, Donejakue bideak indarra hartu zuen, eta beste bi «burgu» sortu ziren jatorri baskoi eta erromatarreko nukleo horren babesean: harresiz inguratutako herriak ziren, eta Pirinioetako iparraldetik zetozenean «frankoak» bizi ziren horietan. San Zernin «burguaz» eta San Nikolas «hiriaz» ari gara.

Donejakue bideari esker sortutako jarduera ekonomikotik bizi ziren bi burgu horiek, eta gaizki konpontzen ziren bai elkarren artean eta bai jatorrizko civitas erromatarrairekin ere, gaur egungo Nabarreriairekin alegia. Liskarrik handienak 1276. urtean izan ziren, San Zerninek eta San Nikolasek bat egin eta Nabarreria suntsitu baitzuten: Burguen Gerra deitu zitzaien borroka haiei. Nabarreria suntsituta egon zen denbora luzez, eta 40 urtez hutsik egon ondoren hasi zen berriz jendea horra bizitzera joaten.



XV. mendearen hasieran, Nafarroako errege handi batek, Karlos III.a Nobleak, eten egin zuen mendez mende hiriak hartu zuen zorigaitzoko ibilbide hori. Burguak etengabe elkarren aurka eta desafioka aritzen ikustearaz nekatuta, Batasunaren Pribilegioa agiri ospatsua kaleratu zuen, hiru burguak Udal bakar batean biltzeko: alkate bakarra, armarri bakarra eta udal-araudi bakarra izanen zuten ordutik aitzina.

3. Elkarbitzitzan: irakaspena nortasun






Hiru burguen arteko gunea elkarren artean borrokatzeko erabiltzen zuten herritarrek garai batean, eta erregeak agindu zuen hor udaletxea eraikitzeo, gaur egungoa dagoen toki berean; hala, eraikin hori batasunaren ikur bilakatu zen iruindarrentzat. Gaur egun udaletxearen sarreran dauden hitzak izaera ireki eta bakegile haren erakusgarri dira: *patet omnibus janua, cor valde magis* (ateak zabalik daude denontzat, baina bihotza are gehiago).

1423ko irailaren 8an eman zen argitara Batasunaren Pribilegioa, Karlos III.a hil baino justu bi urte lehenago zehazki: 1425eko irailaren 8an zendu zen. Hortaz, 2025eko irailaren 8an, Batasunaren Pribilegioaren urteurrena izateaz gain, 600 urte beteko dira Karlos III.a hil zenetik; hiriak bidezko erantzuna eman eta behar bezala ospatu beharko luke egun hori. Hiriaren garapenari dagokionez, Batasunaren Pribilegioak hiria harresiz inguratutako barruti bakar baten barruan bateratzea ekarri zuen, eta ondorioz, burguak banatzen zitzuten barruko harresiak desagertuz joan ziren apurka. Hitz gutxitan esanda, dokumentu garrantzitsu hori mugarri izan zen: Erdi Aroko Iruña atzean utzi eta hiria Aro Modernoan sartzeko lehen pausoa.

POMPAELO | PAMPLONA | IRUÑA

2100 | URTEKO
ELKARBITZTA | AÑOS DE
CONVIVENCIA

4. Hiriburu europarra izateko ametsa



Beaumontarren eta agaramontarren arteko gerra zibilen garai beltza amaituta, egonkortasuna nagusitu zen berriz Katalina Iaren eta Joan Albretekoaren erregealdian. Iruña, erresuma txiki baina kaudimenduna izaki, Errenazimentuan sartzeko prestatzen hasi zen. Aitzitik, 1512ko Gaztelaren inbasioak eta hurrengo 18 urteetako gerrak zapuztu egin zuten amets hori.

1507. urterako bakean zen Iruña. Udalerrri bakar batean bilduta zegoen hiria, eta 1486. urterako bazuen dagoeneko Jureria Etxe berria, udaletxea alegia. Europako mailako katedral bat zuen ordurako, klaustro gotiko ezin ederragoa erdian, eta hiria erresumako erakunde nagusien egoitza zen gainera: Errege Kantzilertz (Real Chancillería), Errege Kontseilua eta Erresumako Gortea eta Diputazioa. Humanismoak Katalina Iaren eta Joan Albretekoaren erregealdian izandako bultzadari esker, 1490erako inprimategi bat zegoen Iruñean, Gutenbergek makina asmatu eta 50 urtera; eta 1499an Gramatika Ikastegi bat sortu zuten, etorkizuneko unibertsitateen aurrekaria: Gramatika, Latina, Artea eta Filosofia irakasten zuten han.

Dena dela, amets eder hori hauts bihurtu zen 1512ko inbasioaren eta hurrengo 18 urteetako gerraren ondorioz. Europako hiriburu ederretako bat bilakatzeko projektua zapuztu, eta jokaleku militar periferiko bihurtu zuten Iruña, harresien barruan itxita inperioa frantsesen erasoetatik babesteko.

5. Hiri hertsatuak suspertzea lortu zuen



Konkistatik XX. menderainoko lau mendeetan, harresien gerriko ikaragarria baino ez zuten eraiki Iruñean Europari begira. Harresi horiek hiriaren hazkundea mugatu eta ito zuten 1915 arte: orduantxe hasi zen hiria suspertzen.



Argi-izpi gutxi izan ziren garai ilun harten, eta Caro Barojak La hora navarra del XVIII (XVIII.eko nafar ordua) deitu zion horretatik zetozten argiune horiek nagusiki: barroko berantiarreko zenbait gaztelu eraiki zituzten; XVIII. mendeko galtzada-harriak eta estoldak jarri zituzten; 1790ean, Subizatik Iruñeko iturrietara ekarri zuten ura; 1888an, Lehen Zabalgunea eraiki zuten, harresien barruan nahi eta nahi ez... eta ezer gutxi gehiago.

1915etik aurrera hasi zen Espainiako Gerraren Ministerioa (Ramo de Guerra) harresietatik kanpo eraikitzeko debekua arintzen, eta orduan bai, Iruña inguruko herrixketaraino zabaldu zen: ordura arte terra nullius izan zen eremu hura, inorena ez den lurra, harresietako kanoiek suntsitua. Horrela sortu zen denok ezagutu dugun hiria.

Hasieran Bigarren Zabalgunea deritzona eraiki zuten. Serapio Esparzak diseinatu zuen, 1916an, eta zenbaitek zioten gehiegizkoa zela Iruñearantzat, baina hamarkada gutxiren buruan bete zuten eraikinek. Geroago, Hirugarren Zabalgunea deitzen den eremua altxatu zuten, XX. mendeko bigarren zatiko garapen berriak baliatuz.



6. Hiriak itxaropenez eta anbizioz begiratzen dio etorkizunari

Gaur egun 200.000 biztanle baino gehiago bizi dira Iruñean, eta hainbeste eraikin daude ezen atzera-bueltarik gabe bere muga naturalak gainditzera bidean baitoa hiria. Iruña hiri bizia da, irekia eta modernoa.

Balioa aitortzen dio orain arteko historia luzeari, baina beste oinarri batzuk ditu abiapuntu XXI. mendeari aurre egiteko: aniztasuna kulturan, hizkuntzan eta herritarren artean, eta berdintasuna emakumeen eta gizonen artean.

2025. urtean, Gnaeus Pompeius Magnus erromatarrek hiria sortu zuenetik 2.100 urte, 21 mende, betetzen diren honetan, Iruña zaharrak itxaropenez eginen dio aurre bi mila urteko ibilbidearen Laugarren Zabalguneari.





Programa anbiziotsua erreferentziazko urteurrena ospatzeko

Udala ontzen ari den programa hiru arlotan da anbiziotsua: denboraren arloan, kulturarenean eta edukien arloan. Programa martxan jartzen denean Iruñeko Udalak parte hartzea lortu nahi da, eragile den heinean. Halaber, hiriko erreferentziazko erakundeek eta eragileek ere parte hartzea da helburua, haien emanen baitiote distira programari. Eta hori guztia azken helburu erabakigarri bat lortzeko izanen da: herritarrak ospakizunaren parte izatea, haien baitira programaren azken hartzailak, eta funtsean programaren parte ere badira, hiria ezin baita ulertu herritarrak alde batera utzita.

Denbora

Urte osoan eginen dira programan bildutako ekitaldiak, baina bi garai dira garrantzitsuenak: udaberria eta iraila.

- » Udaberrian hitzaldi-ziklo bat izanen da: ikuspegi zientifikoa, historikoa, akademikoa eta dibulgatzalea oinarri, hiriaren ibilbide historikoa aletuko dute, baskoien garaitik hasi eta gaur egun arte, elkarbizitza eta abangoardia ardatz dituen hiriaren garaira arte.
- » Irailean, berriz, Iruña modernoaren sorrerari dagokionez garrantzitsuena izan zen eguna ospatuko da: 1423ko irailaren 8a, Batasunaren Pribilegioa sinatu zen eguna. Gainera, aurten, egun horretan bertan, 600 urte beteko dira Karlos III.a Noblea hil zenetik, eta hari bururatu zitzzion Batasunaren Pribilegioa egitea; hark bultzatu zuen, eta hark sinatu.





Kultura

Programa elkarren osagarri diren funtsezko bi ikuspegi uztartzen saiatuko da: alde batetik, urtemugaren neurriko erreferentzialtasun historikoa, eta bestetik, herritarren parte hartzea sustatzea ospakizunaren garrantzia barneratzeko. Eta bi tresnaren bidez eginen da hori nagusiki:

- » Atzera begirako erakusketa bat erromatarrek hiria nola sortu zuten azaltzeko.
- » Batasunaren Pribilegioaren, harresien jaialdiaren eta aurtengo udan berariaz eginen diren beste hainbat ekitaldiren ospakizuna urteurrenaren garrantziari eta neurriari egokitzea.



Edukiak

Uste osoa dugu urteurren hau oroitzea biziki garrantzitsua dela, eta Udal honen ardura da antolatutako topaketa eta jardueretan sortzen den guztia gordetzea etorkizuneko belaunaldiendako.

Horren harira, bi ekintza nagusi proposatu dira:

- » Udaberriko hitzaldiak grabatu eta editatzea, eta horietan esandakoa dokumentatuko duen ikus-entzunezko proiektu bat sortzea. Horri lotuta, liburu bat ere eginen da hitzaldietako bakoitzean jasotako aktekin.
- » Hiriko hainbat apaingarriri duten balioa aitortzea, hiriaren sorrerarekin ez ezik, haren balio artistikoarekin ere zerikusia dutelako.

Programa bat hiru ekitalditan:

Bidaia Iruñeko historian barna

Ibilbide zoragarri bat 2.100 urte baino gehiagoko historian, kulturan eta usadioetan. Hiriaren jatorritik hasi eta etorkizunera bitarte, gonbita egiten dizugu Iruña elkarrikzeten, birsorkuntzen, azoken eta erakusketa aparten bidez bizitzera.

LEHEN EKITALDIA: IRUÑKO HISTORIARI BURUZKO HIZKETALDIAK

2025eko MARTXOA, APIRLA ETA MAIATZA
KONDESTABLEAREN JAUREGIA
HASTEKO ORDUA: 19:00

MARTXOAK 26, ASTEAZKENA INAUGURAZIO-EKITALDIA

1. hizketaldia: «Baskoien mundutik erromatarren mundura».
Jokin Sanz (historialaria). NUPeko irakaslea.
Javier Armendáriz (arkeologoa, NUPeko irakaslea).

APIRILAK 9, ASTEAZKENA

2. hizketaldia: «Iruñeko monarkia: erromatarren urbetik burguen hirira (XII. eta XIII. M.)». Aitor Pescador (historialaria). Josu Narbarte (historialaria).

APIRILAK 15, ASTEARTEA

3. hizketaldia: «Koroatzeen eta saldukerien garaia: XIII. eta XV. mendeetako Iruña». Mikel Zuza (historialaria). Iñaki Sagredo (historialaria).

APIRILAK 30, ASTEAZKENA

4. hizketaldia: «Iruña, zapuztutako egitasmo humanista». Álvaro Adot (historialaria). Peio Monteano (historialaria).

MAIATZAK 6, ASTEARTEA

5. hizketaldia: «Emakumeak Nafarroako historian». Amaia Nausia (historialaria, NUPeko irakaslea). Gemma Piérola (historialaria, NUPeko irakaslea). Ana Diez de Ure (historialaria).

MAIATZAK 13, ASTEARTEA

6. hizketaldia: «Zabalguneen Iruña». Bixente Taberna (arkitektoa). María Urmeneta (arkitektoa).

MAIATZAK 20, ASTEARTEA

7. hizketaldia: «Euskara Iruñeko historian». Kike Díez de Ulzurrun (kazetaria eta itzultzalea). Ekaitz Santazilia (filologoa, NUPeko irakaslea).